

Amaia Zufia

“Beste mundu bat eraiki dezakegula ideologikoki sinestea giltzarri da”



Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartako ordezkarria da. Iruñean jaio zen eta 28 urte bete berri ditu Zufiak. Bilgune feministako kide da eta, hortik egin du jauzi Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartara eta Alternatiben Herrira. Azken honek, baietzari indarra emateko, alternatibak erakusteko eta ezagutzak josteko balio behar duela diosku.

Baionan egin zen lehen Alternatiben Herria 2013an, bigarrena Bilbon 2015ean. Zein balorazio egiten duzue egindako ibilbideaz?

Oso balorazio positiboa. Hasieran oso zentratua egon zen klima aldaketan, baina gero eta ikuspegi integralagoa hartu zuen eta, herri gisa behar ditugun alternatibez eta prozesuez hitz egitera pasatu gara. Indarrak metatzeko aukera eman digu txiki eta handiei. Mugimendu sozio-sindikala konturatu da indar handia ari dela xahutzen sistemari ezetz esaten greba orokor eta bestelako dinamiken bidez: “murrizketei ez”, “kapitalismoari ez”, “lan baldintza hauei ez”... Baiezkoa gutxiago landu izan dugu eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartari hori jorrazera etorri zen. Alternatiben Herria da horren adierazle nagusia. Egun zehatz horretatik egunerokora jauzi egitea da gure erronka.

Eta nola dago osasunez kapitalismoari alternatiba jarri nahi dion esparru zabal hori?

Sisteman honen aldetik egunero jaso-

tzen dugun bonbardaketa handia da. Horren aurrean etsipen handia dago, eta horregatik, beste mundu bat eraiki dezakegula ideologikoki sinestea giltzarri da. Alternatibak guk uste duguna baino gertuago ditugu sarri. Txikitik alternatiba asko eraikitzen ari dira: energiaren munduan, elikaduran, teknologian, gorputz aniztasunean... Gure hutsunea da alternatiba horiek guztiak oso sakabanatuta ditugula.

Asko daude, eta gainera, normala denez, bakoitzarentzat berea da garrantzitsuenak. Horrek askotan zaildu egiten du alternatiba orokorretan pentsatzea.

Bakoitza beretik, baina orokorrean pentsatuz aritzea lortu beharko genuke, bakoitzaren alea marko komun batean jarritz. Horregatik elkar ezagutzea eta elkar saretzea gaoa da.

Nafarroan banaketa politiko handia da gizartean (naziotasuna, hizkuntza...), eta esparru sozialean ere islatzen da hori neurri batean. Alternatiben herriak lortzen al du bi esparru horietako polo sozialenak hurbiltzea?

Nahiko genuke. Azkenean gure aldarrikapena zera da: eskubide sozial guztiak herritar guztientzat, eta hori gehiengo sozial osoaren interesekoa da. “Bizitza burujabea eskubide osoz” da gure goiburua, eta hor sartzen dira baita ere eskubide kultural eta linguistikoak, euskararen defentsa. Baina jatorri eta desberdinen arteko aniztasuna eta el-

» “Bakoitza beretik, baina orokorrean pentsatuz aritzea lortu beharko genuke”

kar ezagutza asko baloratzen dugu; beraz, esparru zabal batera iristeko balio beharko luke Alternatiben Herriak.

Egun zehatz bati begira sare asko josten dira. Gero mantentzen dira?

Kasu batzuetan bai. Bilbokoaren ondoren, naturaren auzoak lortu du saretzea eta orain, esaterako, Ziordian (Nafarroa) topaketak egin berri dituzte aurrera begirako lan ildo eta estrategiak pentsatzeko. Martxoaren 8ko mobilizazioak, pentsiodunenak... esparru batzuetan gizartea bizi-bizi dago gainera. Azken finean, gero eta kezka handiagoa dugu egungo bizi ereduarekiko, ardura sentitzen dugu gure praktika individual zein kolektiboak aldatzeko, eta kosta egiten da, baina badakigu egin behar dugula.

Eraldaketa beharra oso zabaldua dago gizartean: hobeto bizitzeko, lan baldintza duinak izateko, natura suntsitzeari uzteko, zahartzaro duina izateko, emakume gisa aske ibili ahal izateko... Eta gune askotatik, eta Alternatiben Herriatik ere bai, lortzen ari gara hori guztia ikuspegi anitzeko burujabetzarekin lotzea. ■